

20

22



Jaialdia  
ARGIARTEAN



**GAURKO EMANALDIAK**

**20:30 PUY BARRAL & GARAZI NAVAS  
+REBEKA ELIZEGI**

**22:30  
DOTORE + DESILENCE**

**ARGIA RTEAN**  
ART LABORATEGIA



© Iñaki Rubio

# Jaialdia ARGIARTEAN

Donostia Kulturaren gau-saioa harrigarria gertatu zen berriz ere, *light-art* instalazioak, proiektzio handiak eta zuzeneko emanaldiak zirela medio. Hiru gautan, 5.000 lagunek bisitatu zituzten Loiolako Erriberako **Oroimenaren Lorategia** eta **Iesuren eliza**.

**Argiar-tean** Donostia Kulturaren plataforma bat da, argiaren bidezko arte-sorkuntzarako eta diziplina eta soslai desberdinetako artistek beren lan esperimentalak erakutsi ditzaten. Argiaren arteei eskainitako arlo bat, bertakoen talentua biltzeko, sorkuntza bultzatzeko eta arte-adierazpen berriak herritarrei hurbiltzeko gai dena.

Kultur etxeek bigarren edizioaz egindako balantzea ona izan zen antolakuntzari eta herritarren erantzunari dagokienez, 2019ko edizioaz ere egin zuten bezala, zeina **Olatu Talkaren** barruan izan baitzen.



© Iñaki Rubio



Dotore + Desilence © Iñaki Rubio

Barrutia ostiraleko 20:00etan ireki zen, **Manu Muniategiandikoetxea, Rebea Elizegi, Jacek Markusiewicz, Ander Gortazar, Jon Begiristain, José Zugasti, Borja Jiménez, Xabier Lozano, Monika Aranda, Diego Sologuren** eta **Paul Friedlander**ren argi-instalazioak, eskulturak eta proiektzio monumentalak ikusgai zirela.



© Iñaki Rubio

Emanaldien programa, berriz, **Puy Barral** eta **Garazi Navasen collage** batekin hasi zen, zeinak hitz errezitatua, musika eta arte bisuala biltzen baitzituen, eta zeinean **Huesos** poesia errezitala egokitu baitzioten **Rebeka Elizegiren Lumoren** proiektioari. Ondoren, **Pablo Martínez Dotorek** bat egin zuen **Tatiana Halbach** eta **Soren Christensen Desilence** artista bisualekin, ahotsak eta txaloak sanpleatuta pop argizkoa eskaintzeko.

Larunbatean, argi-jokoak **Lluch eta Labcuatroren** girotze-musikarekin hasi ziren, eta ondoren **Garazi Gorostiaga** eta **Garazi Navasek** osatutako bikotea etorri zen, akordeoia eta elektronika espermental ilun eta betea batzen zituena. Elektronikak gauean izan zuen segida, **Skygazek** eta **Inesferak** jardun zuten amaierako ekitaldian.


Igandean, **Beñat Achiaryk** eta **Joseba Irazokik Jose Antonio Sistiaga** omendu zuten beren ahots eta soinuez, haren **Impresiones en la alta atmósfera** (1989) film labur animatua proiektatu bitartean, eta azken musika-emanaldia **Bongho Krappulen** psikodelia exotikoaren eta **Paolettaren** laborategi argizko eta analogikoaren esku egon zen.




Huesos © Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio



Paul Friedlander © Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio

**Animadeba** zinemaldiak hautaturiko film labur esperimentalen proiektioaz gozatzeko modua ere egon zen, **ZineTxita** zine ibiltariaren bidez, bai eta **Kemekomoren**, **Medrar Tierraren** (beganoa) *food truck*-en eta **Grossen** artisau-garagardoaren eskaintza gastronomikoaz ere. Azken batean, **Argiartearen 2022k** 2019ko **Olatu Talkaren** lekukoa hartu zuen, hari jarraipena emateko asmoz etorria izaki. Laborategi esperimentala, komisario lanetan **Edorta Subijana** eta **Jaime de los Ríos** artista izan zituena, eta bertako talentuari begirakoa.